

EUSKARAREN INGURUKO JARDUNALDIAK EGIN DIRA OÑATIN

Oñati, 2005-IV-26-29

*Xabier Kintana eta Henrike Knörr izan dira,
Euskaltzaindiaren izenean*

Apirilaren 26tik 29ra bitartean, Elkar Hezi Ikastetxeko batxilergoko bigarren mailako ikasleek antolatuta, euskararen gaineko jardunaldiak egin dituzte, Oñatin. Beste baturen artean, Xabier Kintana eta Henrike Knörr euskaltzainek hartu dute parte.

Hau izan da egitaraua:

- Apirilaren 26a, asteartea: Xabier Kintana eta Jurgi Kintana aritu dira. Gaia: «Euskararen jatorria eta bilakaera historikoa».
- Apirilaren 27a, asteazkena: Gerardo Elortza, Roberto Altuna eta Asier Sarasua. Gaia: «Deba Ibarreko azpieuskalkien inguruko gainbegiratua. Gure azpieuskalkiaren, oñatieraren, ezaugarriak. Grafiaren auzia. Oñatiera baturik, bai ote?»
- Apirilaren 29a, ostirala: Pello Zabalak eta Paulo Agirrebaltzategik: «Kandido Izagirre, Luis Villasante eta Bitoriano Gandiagaz, batetik, eta oñatieraren gainean, bestetik», hitz egin dute. Henrike Knörr izan da, Euskaltzaindiaren izenean.

EUSKARA, EUSKALKIAK, ZENTZUA

Henrike Knörr

Oñatieraren inguruko Jardunaldien bukaera honetan Euskaltzaindiaren izenean hitz batzuk esan ditzadan eskatu didate. Halaxe egingo dut, ezin etorrian gertatu den Andres Urrutia euskaltzainburu jaunaren ordeztan eta partez.

Ekitaldian lau gizon gogoratu eta omendu nahi izan dituzte antolatzaileek: Luis Villasante, Kandido Izagirre, Ignazio Omaetxeberria eta Bitoriano Gandiaga. Arrazoi osoz, esango nuke, eta areago Oñatin izaki. Zeren mundu guztiak baitaki laurak frantziskotarrak izan zirela, eta Arantzuzuko fraideak. Zein bere nortasunarekin, zein bere isuri eta zaletasunekin, baina nabari da, ordenakide izateaz gain, lokarri estuak bazirela haien artean. Besteak beste, Villasante izan zen Kandiko Izagirreraren dialektologia lan bikain baten edizio-gile. Izan ere, «El vocabulario vasco de Aránzazu – Oñate y zonas colindantes» deritzana Luis Villasantek prestatu zuen, hitzaurre on batez hornitu eta moldiztegitara eraman, Izagirre hil ondoren, eta *Anuario del Seminario de Filología Julio de Urquijo* aldizkarian 1970ean argitaratu.

Lau gizon horietaz mintzatu zaizkigu Paulo Agirrebaltzategi eta Pello Zabala. Nik ez nuke deus erantsi nahi. Bakar-bakarrik, hauxe: Luis Villasanteren aldizkako taxilaria izan nintzela, Euskaltzaindiaren batzarretara eramateko edota haïetatik ekartzeko. Ezin ordainduzkoak ziren bidaia haiek, mila berri interesgarri eskuratzeko aukera paregabeak. Zinez laburregi irizten nien nik kilometro haiei.

Euskalkiak eta euskara batua izan dira egunotan hizpide. Hizpide ere izaten dira maiz euskaldunen artean. Agian ez beti beharrezko dugun orekarekin eta zentzuarekin, nik uste. Zergatik diot nik hori?

Duela bi urte, Bizkaiko herri handi bateko alkateak esan zidana gogoan dut: «Nik ez dut euskara batuaren beharrik». Garbi zegoen zer esan nahi zuen: egunoroko harremanetarako, euskalkia zein gaztelania. Besterik ez.

Itsuenak ere ikus dezake bide horretatik etorkizun beltza izango lukeela euskarak. Udalaren aurrekontua, etxegintza-enpresa batekiko kontratua eta antzeko gauzak tratatzeko, euskalkia ez da aski, ez du balio. Orduan, bietariko bat: edo norberak lantzen du euskara, euskara batua, gai horietaz mintzatzeko eta eztabaidatzeko, edo beti izango dugu gaztelania, gure hutsen sendagarri eta

betegarri. Eta Udaletik ateratzean gehiago: politikaz, filosofiaz, literaturaz, zeinahi gaiz hitz egiteko, euskara batua behar da, ez gaitezen ergelak izan.

Ez nauzue euskalkien aurkako, inola ere ez. Beste hau defendatzen dut, ordea: mailak eta mintzaguneak bereizi beharra, noiz nola jokatzeko jakin. Eta, egia osoa esateko, euskalkikeria dut kezka-iturri. Ongi dago arbasoengandiko ondarea gordetzea, eta hondamenditik salbatzea. Baina gaurko munduak, mundu zail honek, euskaldun guztion arteko hizkuntza-tresna eskatzen du. Eta batzuetan alderantzizko norabidean goazela dirudi. Eredu-emaile izan behar dutenek berek (irratian, telebistan, hitzaldi-aretoetan, elizetan), maila jasoa nahitaezkoa denean ere, zabarkeriaz hitz egiten dute: *laister, derrigor, bueltatu, bueno, ikusi dizut, Ondarru, Biruatú*, eta abar, eta abar. Akademiaren arauz kontu gutxi egiten dute askok eta askok. Eta batzuek azken txokokeriak altxatzen dituzte, lekuz kanpo, hori gure hizkuntzaren muina balitz bezala.

Gure Herriak euskararen ibai zabala behar du. Eta ibai eder guztiek bezala, euskararenak ere ibai-adar ugari eta oparoak behar ditu (Oñatiko euskara da ibar-adar horietako bat). Euskara batua, guztion euskara hori, horren premian dago: hitzen eta esamoldeen premian, mendez mende bildu den altxorren premian, aspaldiko garaien oihartzunaren premian, idazle hobereenen uztaren premian. Eta beste hau ahantzi gabe: dotoretasuna eta jendetasuna. Utikan behingoz arlotekeria eta zarpailkeria! Gure hizkuntzaren besalagun txarrak dira horiek. Zeren, Kirikiñok zioen moduan, *euskarak kapelua jantzi behar du*. Ez erakusteko inor baino gehiago garela, baizik besteak baino gutxiago ez garela. Horrela, eta bakarrik horrela, aurre egin diezaiokegu geroari.

(Testu hau *Elkar hezi* ikastetetxeak antolaturiko Oñatieraren inguruko 1. Jardunaldien bukaeran irakurri zuen egileak, Oñatin, Santa Ana teatroan, 2005eko apirilaren 29an.)